

40. Jazzaldia
aurkeztu
duteIzar handiak
etorriko dira ▶ 9

Mario Salegi idazle, kazetari eta gudari donostiarra hil egin da

BIZIPENAK ▶ Mario Salegiren
bizitza XX. mendeko historiaren
adierazle argia izan da

ITZULERA ▶ Azken urteak
igarotzera Donostiara itzultzekoa
zen, baina New Yorken zendu da ▶ 5



Mario Salegi. IRUTXULO



Aranzadik gutxienez 200 urte dituen nasa topatu du Ondarretan

KARTZELA ▶ Espetxe zaharreko harriak kendu aurretik,
ikerketa egiten ari da, eta 200dik gora urteko nasa topatu du.
Harriak kendu behar dituztela eta, IRUTXULO KO HITZA espetxea
ezagutu zutenekin egon da, bizipenak gogoratzeko. ION LOPEZ ▶ 6-7

INGURUMENA ▶

Biometanizazio planta Belartza ondoan jar daitekeela dio Elorzak

Orain arte proposatutako beste lekuak
baino egokiagoa dela uste du ▶ 4

HITZA jaso nahi baduzu, deitu

943 30 43 46ra

Edo txartela bete eta
bidali helbide honetara:

Katalina Eleizegi 36 behekoa
20009 DONOSTIA

Arrain eta itsaskietan
adituak
Kaia 14,
20003 Donostia



Tel. 943 420180 - 943 428456
Faxa: 943 421871

EKONOMIA ▶ ERRENTA KANPAINA

Aitorpena egiteko garaia

Apirilaren 25etik ekainaren 27ra egin daiteke errenta aitorpena

ORREAGA ARANBURU

Astelehenean hasiko da 2004ko Errenta eta Ondarearen aitorpena egiteko kanpaina, eta ekainaren 27an bukatuko da aitorpena aurkezteko epea.

Kanpaina hasi aurretik, Foru Aldundiak aldeztu aurretik egingako aitorpen proposamena bidali zien 118.000 gipuzkoarri. Hauek maiatzaren 13a arte dute aitorpena onartzeko epea, eta telefonoz edo internet bidez jakinarazi dezakete.

Aitorpena egin behar duten gainontzeko hiritarrek hainbat

aukera dituzte. Batetik, zerga bulegoetan ordua eskatu dezakete aurkezpen mekanikoa egiteko. Finantza entitateetan edo aholkulari bulegoetan ere egin dezakete aitorpena. Internet bidez ere egin daiteke, baina aitorpena bide hori erabiltzea egin arren, agiriak bulegoetara eramane behar dira. Azkenik, disketean (interneteko laguntza programaren bidez) edo paperean (Errotaburuko bulegoan zein estankoean eskuratu daitezke inprimakiak) egingako aitorpenak finantza entitateetan edo zerga bulegoetan entregatu daitezke.

Eragozpen fiskala

KEM Kontzientzia Eragozpen Mugimenduk eragozpen fiskala egiteko deia egin du, zergak gastu militarretan erabil ez daitezkeen. Hala nahi duten herritarrek agiri baten bidez jakinarazi behar diote Ogasun Sailari ez dutela bere zergak gastu militarretan erabiltzerik nahi. Agiriak kemdon@euskalnet.net helbidean edo 666619586 telefonoz eskatu daitezke.

Gorrentzako informazioa

Iñaki Rica Ogasun zuzendaria Gipuzkoako Gorren Elkarrekin Errege Katoliko kalean duen egoitzan izango da gaur 18:00etan.

Elkarrekin hala eskatuta, errenta kanpainari buruzko hitzaldia emango du eta gorrek egiten dizkioten galderak erantzun ditu. Berarekin batera, zeinu hizkuntzan arituko den interprete bat egongo da.



Joan etorri ugari izango dira datozen egunetan zerga bulegoetan. RAUL PEREZ

OINARRIZKO DATUAK ▶

DONOSTIAKO BULEGOAK

Egoitza nagusia. Errotaburua pasealekua 2.

Zerga bulegoak:

- ▶ Okendo 20.
- ▶ Sekundino Esnaola 10-12.

HARREMANETARAKO

Telefonoa. 902 100 040

▶ Informazioa eskatzeko:

asteleheneetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara.

▶ Errenta mekanizatua egiteko ordua eskatzeko: asteleheneetik ostiralera, 24 orduz.

▶ Aurretiaz egindako aitorpen proposamena onartzeko: asteleheneetik ostiralera. 08:00etatik 20:00etara.

Webgunea.

www.gipuzkoa.net/ogasuna/renta

▶ Informazioa, ordua eskatzea eta aurretiazko aitorpena onartzea egunero 24 orduz.

AGIRIAK

Aurkeztu behar diren oinarriko agiriak.

- ▶ NANaren fotokopia.
- ▶ Familia liburuaren fotokopia.
- ▶ 10T izeneko laneko ziurtagiria.
- ▶ Jabetza inbiliariorako dituztenek horien zerga ziurtagiria.
- ▶ Etxeren bat saldu edo alokairuan utzi dutenak izandako irabazien ziurtagiria.

▶ 2004an etxea erosi zutenek honen eskriturak.

Desgrabatzeko aurkeztu daitezkeen agiriak.

- ▶ Etxebizitzaren alokairua ordaintzen dutenak alokairuaren kontratua eta banketxeko ordainagiriak.
- ▶ Bananduta daudenek eta bokotekideari edo seme-alabei pentsio ordaintzen diotenek hori azaltzen duen epaia.
- ▶ Elkarerren baten aldeko donazio bat egin dutenak horren ordainagiria.
- ▶ Banketxeko errentazioen agiria.
- ▶ Sindikatuei ordaindutako kuoten agiria.

LORETOPETIK ▶ IÑAKI EGUREN 'PAOLEI' (TXISTULARIA)

Goikogaltzadako pasabidea



Urte batzuk badira Bentakoren bat (ez dakit seguru nor izan zen aurrenekoa), Londresean oporretara joan eta, Argizari Museoko pertsonaiei begira, bere aitona aurkitu omen zuela, printzipe jantzita. Horretan jakin omen zuten Bentakoek Ingalaterrako Windsortarren igual-igualak zirela, aurpegiz behintzat. Geroztik behin baino gehiagotan aditu behar izan diegu beraien ere odol urdinekoak direla, Camilaren ezkontzara gonbidatu ez badituzte ere.

Izan ere, Goikogaltzada edo Aiete, nahiago duzun bezala, pasabidea izan da beti: bertatik etortzen omen zen Nafarroa aldetik Donostiara zetorren ardoa, eta bertatik joaten omen zen Nafarroara Ameriketarik etorritako kakaoa. Hernaniko gure amona ere handik barrera etortzen omen zen plazara tratua saltzera otarra buruan zuela, eta igandetan Hernaniko bailera ere makina bat jende joana izango da Aieten barrera. Horregatik, Berwick eta bere soldaduek ere bertatik paseak izan behar zuten Donostia setiatzera etorri zirenean; historialariek hori esaten dute, behintzat. Britainiar haiek kainoen balez gainera beste zerbaite ere utzi omen esaten dute Bentakoek berriz.

Baina horiek denak lehengo kontuak

dira. Gaur, Aiete ez da pasabidea. Makina bat jende egiten dugu pasatzeko ahalegina, besterik ez bada etxeko atariraino, baina ez dago erraza. Izatez urte luzea baita, hasi Erramonenetik eta Las-tueneraino (orain Inasmet esan beharko diogu), zuloa ireki zutela errepidean; eta oraindik begira-begira jarrita gaudela, udaberriko euri piska hauekin espaloi berriak beren gisa ernetuko ote diren sagastietako loreen antzera; egin ez ditut inork egiten eta.

Farola batzuk jarri dituzte oraintsu, baina piztutzea ahaztu. Zanja, alde batean egin zutena bai, bete zuten, baina trafikoa dabilen aldean egin diren zuloak... Zertarako? Egia esan, Oriamendiko aurrean egin zutena tapatu zuten bezala tapatzeko (porlana bota eta le-

hen zuloa zegoen tokian koska jarri), hobeto daude bai bere horretan. Putzuak ere ez dira egiten, esan bailiteke Txandarmenetik Merkelerena dena putzu bat bakarra dela.

Goikogaltzadak oraintxe, goikotik izango du zerbaite, baina galtzadatik... Soldadu ingeles gutxi ikusten dugu gaur gain hauetan, Guardia Zibil ugarixeago (hauetako ere gustatu zaie nonbait Benta inguruko parajea kontrolak jartzeko). Martxa honetan, ordea, hauek ere lanak izango dituzte hemendik pasatzen. Benta hori izango al dugu behintzat!

▶ zure iritzia berri emateko, iritzia@irutxulokohitza.info eta Katalina Eleizegi 36 behekoa helbideak edo 943 44 65 32 faxa erabili, izena adierazita; HITZAK mozteko eskubidea du
▶ IRUTXULOKO HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik

ANTIGUA ▶ OMENALDIA

Antiguako zaharren egoitzaren sortzaileak omenduko dituzte

Guztira, 26 gizon eta emakumeri gorazarre egingo diete igandean Antiguako Aranzazu hotelean

RAUL PEREZ

Antiguako zaharren elkarteak omenaldia egingo die igandean sortzaileei. Hauxe da, elkar-
tea 1978an sortu zenetik, sor-
tzaileek jasoko duten lehen
omenaldia. Aranzazu hotelean
bazkaria egingo dute eta ondo-
ren bina oroigarri emango diz-
kiete 26 sortzaileei. Tamalez,
guztiek ezin izango dituzte
oroigarriok jaso. Bi hilda dau-
de — haien alargunek jasoko
dituzte — eta besteren bat gai-
xo dago. Oraingo presidente
Juan Gabellanesek ez du za-
lantzarik: «Ekimena behar-be-
harrezkoa da; omenaldi hau
zor diegu».

Bernardo Mateu eta Martin
Camino sortzaileetako bi dira,
eta elkartearen bilakaera azal-
du digute. «Antiguako zaha-
rren elkartea 1978an sortu
zen. Gipuzkoako Aurrezki Ku-
txak utzi zigun garaje zahar bat
egoitza gisa. Lokal hura bitxia
zen; barra auzoko taberneta-
koa baino luzeagoa zen», gogo-
ratu du Bernardo Mateuk.

Zaharren elkartea sortu au-
rretik, Antiguako erretiratuak
zenbait ekintza egiten zituzten.
Adibidez, oso jendetsuak ziren



Bernardo Mateu, Juan Gabellanes eta Martin Camino. RAUL PEREZ

tarteka frontoian egiten zituz-
ten meriendak. «Kutsu herri-
koaia zuten haiek. Nork bere
etxetik ekartzen zuen jateko
zerbait. Auzoko elkarte gastro-
nomikoei eta tabernei ere zer-
bait eskaintzen zuten. Txango
bat edo beste ere egin genuen.
Hori guztia ikusita, elkartea
sortzea erabaki genuen», dio
Martin Caminok. Datu bitxia
nabarmendu dute erretira-

tuok: elkartearen sortzaile
gehienek 55 bat urte zituzten.
Ez ziren, alajaina, oso zaha-
rreak. «Lizarriturri xaboi enpre-
sa handia itxi zuten eta aurreti-
ko erretiroa hartutako batzuek
eratu genuen elkartea», dio
Bernardo Mateuk.

Duela 14 urtetik Ondarretan

Antiguako jubilatuek Benta
Berrin izan zuten egoitza, harik
eta duela 14 urte lekuz aldatu
behar izan zuten arte. Orduan,
oraingo egoitzara, Ondarreta
kalera joan ziren; Udalak utzi
zien lokala. Taberna, jatetxea,
ileapaindegia eta hainbat ekin-
tza egiteko gela dituzte oraingo
egoitzan. Lekua hobeto bana-
tuta beharko lukeela dio oraingo
presidentek, baina orok har-
gustura dabilta. Zaharren el-
kartearak 1.300 bazkide ditu
orain. Gehientsuenak Antigua
eta Benta Berrikoak dira, baina
Ibaeta, Aiete eta Igeldoko baz-
kideak ere badira.

LOIOLA ▶ JAIA

Gazte Asanbladak urtemuga ospatuko du

Herri bazkaria, jolasak, triki poteoa eta kontzertua izango dira eguerditik aurrera

R. PEREZ

Loiolako Gazte Asanbladak
bigarren urteurrena ospatuko
du gaur. 14:30ean, herri baz-
karia egingo dute Aloñako pa-
sabidean. Txartelak sei euro-
tan eskura daitezke Maritxu,
Aloña, Elizalde, Hontza eta Al-
dazabal tabernetan. Bazka-
lostean altxorraren bila jolasa
izango da. 19:00ean triki pote-
oaren txanda irisiko da eta ja-
raian, Harrika, Golpe de Esta-
do, Mendeku Itsua eta Subur-
bio taldeen kontzertua,
frontoian. Kontzerturako sa-
rakerak hiru eurotan jarriko di-
tuzte salgai.

Gazte Asanbladako kideak,
gorabeherak gorabehera, po-
zik daude bi urteotan eginda-
ko lanarekin, eta datozen hila-
beteetako jarduerak antola-
tzen ari dira orain; maiatzeko
txalaparta ikastaroa, III. Toka
Txapelketa eta Herri Urratse-
ra joateko autobusa.

Taldearen gabezia nagusia
elkartzeko toki falta da. Hasie-
ran, parke zaharreko Gazte
Lokalean elkartzen ziren.

Gazte Asanbladako kide batzuk
Gazte Lokalean. IRUTXULO

Dena dela, Loiolako zaharber-
ritze lanen ondorioz, Gazte
Lokala lurrera bota zuten. Ge-
roztik, bilerak Loiola eta Txo-
min Eneko kultur etxeetan
egin dituzte.

Egoitza lortzeaz gain, ekin-
tzetan auzoko gazte gehiagok
parte hartzea da Gazte Asan-
bladaren erronka. Antolatzaile-
ek, auzoko gazteei ez ezik,
beste edozein tokitako ere
gaur Loiolara hurbiltzeko
gonbitea egin diete.



Kanpaldiaren aurkezpena

EGIA ▶ Gaztelekuko lagunek Abenturaz Blai kanpaldia
aurkeztuko dute gaur 18:00etan, Gaztelekuan bertan. Aurten
Baztan aldera joango dira, uztailaren bigarren hamabostaldian.
Ekimena 12 eta 17 urte bitarteko gaztetxoek zuzenduta dago
eta ez da ohiko kanpaldia; gaztetxoak eta monitorea, bi
astetan, leku batetik bestera ibiltzen dira. RAUL PEREZ

OMENDUEN ZERRENDA ▶

- ▶ Clementina Laburu
- ▶ Bernardo Mateu
- ▶ Pablo Angiozar
- ▶ Martin Anza
- ▶ Ana Aranzamendi
- ▶ Martin Camino
- ▶ Xabier Iñigo
- ▶ Izar Marcos
- ▶ Felipe Ojanguren
- ▶ Antonio Salbidea
- ▶ Alejandro Virgala
- ▶ Isidoro Zabala
- ▶ Basili Alustiza
- ▶ Pepi Anza
- ▶ Asun Anza
- ▶ Basi Martinez
- ▶ Conchi Martinez
- ▶ Maite Mujika
- ▶ Rosi Pikabea
- ▶ Loli Ramirez
- ▶ Inma San Sebastian
- ▶ Loli Sorozabal
- ▶ Merche Vazquez
- ▶ Maite Andoaga
- ▶ Maite Gonzalez
- ▶ Mari Carmen Olaskoaga

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Laguntzaile administratiboak.

Leku libreak: Hernani, Usurbil,
Beasain, Altzo, Bergara, Sorluze,
Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta.
Informatu: 943 43 41 27.
Haur hezkuntza. Gaztelerako 106

leku, euskarako 52. Doako
informazioa. 943 43 41 27.

Fisioterapeutak. Laboratorioa, argi-
izpi teknikoak, erizain laguntzaileak.
Hurrena sartzeko: osasunbidea,
erakunde publikoak. Informatu: 943
43 41 27.

Sukaldeko laguntzaileak.

Sukaldariak, tabernariak. Leku
libreak: ikastetxeak, erresidentziak,
Eusko Jaurilaritza. Informatu: 943 43
41 27.

Peoiak. Igeltseroak, soldadoreak,
mantenimendua. Leku libreak:

Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria,
Antzuola, Zeraia, Mendaro, Villabona.
Informatu: 943 43 41 27.

Gidariak. Hurrena sartzeko:
udaleak, Eusko Jaurilaritza, Foru
Aldundia. Doako informazioa.
Informatu: 943 43 41 27.

Irakasleak. 465 leku libre. Hurrengo
deialdiak. Informazioa doan.

Informatu: 943 43 41 27.

Udaltzainak. 25 leku libre
udaleteetarako: Eibar, Mutriku,
Ordizia, Beasain, Hernani, Irun,
Arrasate. Informazioa: 943 43 41 27

INGURUMENA ▶ BIOMETANIZAZIO PLANTA

Biometanizazio planta Belartza ondoan jar daitekeela dio Elorzak

Belartzako industrialdearen alboko gune bat da, alkatearen ustez, biometanizazio planta jartzeko tokirik egokiena



Udal Gobernuak biometanizazio planta jartzeko aukeratutako lekuetako bat. ION LOPEZ

ION LOPEZ

Atzo Elorza alkateak biometanizazio planta jartzeko hirugarren leku posiblea jakinarazi zuen. Belartza industrialdetik gertu dago, eta alde batean A-8 autobidea du, eta bestean,

etorkizunean, bigarren saihesbidea izango du. Gune hori hiru antzekoa da, eta azterketak egin ondoren, Udal Gobernuak biometanizazio planta jartzeko aukeratu du.

Atzo Odon Elorzak azaldu zuenez, «jakina da Aldundiak

Aritzetan jarri nahi duela errauste planta, Donostiako Gobernuaren nahien aurka. Hala ere, guk ikerketak egiten jarraitu dugu eta leku hau proposatu dugu, baina beti ere, biometanizazio planta jartzeko eta ez errauste planta». Alkate-

ak adierazi zuenez, Donostiako eta Usurbilgo lurren artean dago aukeratutako gunea eta ez du ez natura aldetik ez eta paisaia aldetik ere interes berezirik. Gainera, gaur egungo araudiaren arabera, lur horretan ezin dira etxeak eraiki. Handik gertu, Usurbilgo Udalak Elor industrialde berria egiteko asmoa azaldu du.

40 hektareko gune honetako iparreko muturrean jarri nahi du Udal Gobernak biometanizazio planta. Odon Elorzak azaldu zuenez, «Gune hau, Aritzetan proposatu direnak — Loistegiko gaina eta Arpita Zaharra — baino aproposagoa da zalantzarik gabe». Aukeratutako lekua, Euskotrenen trenbidetik gertu egotea ere, abantaila dela adierazi zuen Elorzak: «Europar bisitatu ditugun biometanizazio planta askotan, hondakinak trenetan eramaten dituzte edukiontzi berezietan. Hemen ere hori egin ahal izango da etorkizunean».

Oran EAJ-Earen txanda iritsi dela azaldu zuen alkateak: «Udaleko EAJko zinegotziek eztabaidaren norabidea aldatu nahi izan dute, biometanizazio planta jartzeko hirugarren lekua jakinarazten ez genuelako. Baina, benetako eztabaida ez da hori; benetako eztabaida, errauste planta jartzea ala ez jartzea da».

Foru Aldundiak aspaldian errauste plantari buruzko albisterik ez duela eman azaldu zuen alkateak eta erakunde horrek antolatutako «jakintsuen batzordearekin» zer gertatu den galdetu zuen.

Proposatutako lekuez gain, beste batzuk ere proposatuko dituela azaldu zuen Elorzak.

HIRIGINTZA ▶

Autonomia kalea irekiko dute, sei urte eta gero

Sei urte irteerarik gabe egon ostean, ireki eta hirigintza lanak egingo dituzte

I. LOPEZ

Gobernu Batzordearen atzoko bileran, Amara Zaharreko Autonomia kalearen hirigintza proiektua onartu zuten, eta, ongi bidean, ondorengo asteetan hasiko dira kalea irekitzeko lanak.

Euskotreneko ibilbidearen lanak direla eta, eta hauen atzerapen handiagatik, sei urtez itxita egon da Autonomia kalea, Morlanserako norabidean. Honela, urte hauek, kaleak ez du irteerarik izan. Itxi zuten garaian, bizilagunek protesta eta kexa ugari egin zituzten honen kontura.

Euskotreneko lanak bukatu ondoren, gas fabrikaruntz irekiko da Autonomia kalea. 300 metro izango dira, gutxi gorabehera, irekierarekin kaleari gehituko dizkiotenak. Kaleko espaloiak ere handitu egingo dituzte; mendi aldean bi metroko zabalerako espaloia egingo dute eta beste aldean hiru metroko zabalerakoa. Lan hauek 348.000 euroko aurrekontua izango dute eta hiru hilabeteko epea izango du enpresak lanak bukatzeko.

KUARTELAK ▶

Ezekkoa eman dio Espainiako kongresuak EAJri

EAJk Loiolako kuartelen inguruan egindako eskaera atzera bota zuen Espainiako Kongresuko Sustapen eta Etxebizita Batzordeak, PSOE-ren eta PPren aurkako botoekin. EAJk, Loiolako kuartelak tokiz aldatzeko ahalegina egitea eskatu zion Espainiako Gobernuari. Horretarako, EAJk Etxebizitza Ministerioari eskatu zion Barne eta Defentsa Ministerioen aurrean gaia defenda zezala. Roman Sodupe salatu zuenez, Odon Elorzak zuzentzen duen Udal Gobernuak gauza bat dio eta haren alderdi politikoa kontrakoa egiten du.

EPAITEGIAK ▶

Inputatu gisa deklaratu du Iñigo Baldak

Baga Bogako Iñigo Baldak inputatu gisa deklaratu zuen atzo Donostiako Epaitegian, Andoaingo udaletxean apartheid politikoa salatuzko ezker abertzaleko hainbat hautetsik egin zuten salaketa ekintza dela eta. Epailearen galderei erantzunez, ekimen hartan parte hartu zuela onartu zuen Baldak, baina ukatu egin zuen protestaldian indarkeria erabili zutenik. Deklarazioa bukatuta, epaitegiaren aurrean kontzentrazioa egin zuen Baga Bogak, «donostiarron hitza eta erabakia errespetatu» lemapean.



EKAITZ AGIRRE.

ATXILOKETA ▶

Unai Errea abokatua atxilotu dute

Unai Errea abokatu antigitarra atxilotu zuten atzo Parisen, bertako justizia jauregitik ateratzen ari zenean. Erreak Le Vert epailearekin bilera egin berri zuen, diligentsia batzuk aurrera eramateko, eta epaitegitik ateratzerakoan zenbait polizia eta fiskala zain zituen. Unai Errea inkomunikatuta dago, lege antite-rroristapean. Unai Erreak Frantzia dauden euskal presoen defentsa eramaten du. Askatsuna erakundeak «abokatuen aurkako jazarpena» gogor salatu du eta Errea lehenbailehen askatze eskatu du.

MUGIKORTASUNA ▶

PPk araudian aldaketak egitea proposatu du

Mugikortasunaren inguruko araudi berrian aldaketa batzuk egitea proposatu zuen atzo PPK. Jose Luis Arrue zinegotziaren arabera, araudi honen zenbait puntu zehatz gabe daude eta hauek argitzea komeniko litzateke, araudia behin betiko onartu aurretik. Esaterako, ibilgai-luen deskribapen zehatzak egitea beharrezkotzat jo zuen PPK. Adibidez, monopatinak eta motordun patinak ez daude araututa edo deskribatuta eta horrek, Udal-tzainen lana zaildu egiten du, isunak jartzeko ez baitakite zein motatako ibilgailua den

HERIOTZAK ▶

Mario Salegi hil da

Idazle donostiarra, Euzko Indarra
batailoiko gudaria, euskaldunon
'enbaxadore' New Yorken... atzo hil zen

IMANOL MURUA URIA (BERRIA)

Ameriketako Estatu Batuetara joandako euskal herritarrei beti gauza bera esaten zien Mario Salegik: «Gelditu zaitez denbora batez, ikasi ahal duzun guztia, eta etxera itzuli». Berak ere hori egin nahi zuen: 1941ean New Yorkera heldu zenetik AEBak izan zituen bizileku nagusi, baina Euskal Herrira itzultzeko erabakia hartua zuen. Asmoa bete gabe joan da, ordea. Atzo hil zen, New Yorken, 86 urterekin, neumoniak jota. Bere gorpua gaur erraustuko dute; bi aste barru, errautesen erdia Euskal Herrira ekarri eta Aralarren haizatuko dute.

Militante komunista eta Jagi-Jagi mugimenduko kidea gaztaroan, Eusko Gudarostean gudar 1936ko gerran, erresistentzian aritua frankismoaren lehen urteetan, AEBetako Itsas Armadan soldadu II. Mundu Gerraren bukaeran, kazetaria hainbat egunkari eta aldizkarietan, argitaletxe baten sortzailea, idazlea eta, batez ere, euskal herritarren New Yorkeko enbaxadorea.

«Bere bizitza kontatzea gure herriaren XX. mendeko historia kontatzea da», esan zuen Iñaki Egañak, Mario Salegiren elkarriketa biografikoaren egileak (*Mario Salegi, la pasión del siglo XX*, 1999), liburua aurkeztu zuenean. Salegik berak bi liburu idatzi zituen —*Morir en Irun* (1980) eta *Operación Carlomagno* (1988)—, eta Iñaki

Egañarekin elkarlanean, FBIk eta CIAk Euskal Herriari buruz egindako agiri hautatuak bildu zituen beste batean: *Expediente Vasco. CIA y FBI en Euskal Herria* (2003).

Ezkerriarra eta abertzalea

Mario Salegi (Donostia, 1918) Gazteria Komunistetako kide egin zen gaztaroan. Kontatzen zuenez, aitak kafea hartu ohi zuen tabernaren atean aritu ohi zen Euzkadi Roja aldizkaria oihuka saltzen, «aita gogaitzeko», EAJkoa baitzen. 1935ean, Donostiatik Pariseraino oinez joan zen, beste bi kideekin batera, faxismoaren aurkako nazioarteko batzarrera; hogeita bost egun behar izan zituzten. Komunistekin etsita itzuli zen batzar hartatik, eta Jagi-Jagi mugimendura hurbildu zen —EAJtik bereizitako talde abertzale erradikala—.

1936ko gerra uztailaren 21ean hasi zen Salegirentzat, Donostian. Etxeko atarian tiro eta oihuak entzun orduko jan-tzi, pistola hartu eta kalera irteten zen. Nauticoaren eta Kasinoaren asaltoetan hartu zuen parte Salegik. «[Nauticoan] dozena bat guardia zibil preso hartu eta UGTren egoitzara bidali genituen; han garbitu zituzten», kontatu zion *Berriari* 2003an. Kasinoan, metrailadorak batez jabetu zuen Salegi: «Oraindik ere han daude harekin jo nituen arrastoak».

EAE-ANVren Euzko Indarra batailoien sorreran parte



Mario Salegi. *Mario Salegi. La pasión del siglo XX* liburua eskuetan zuela. IRUTXULO

36KO GERRA

Nauticoaren eta kasinoaren asaltoetan hartu zuen parte. Dozena bat guardia zibil atxilotu zituzten

hartu zuen, eta harekin borrokatu zen hainbat frontetan, hala nola Loiolako santutegian, Irunen, Urretxun, Zornotzan eta Asturiasen. Beste gudari asko bezala, Santofia Itunaren ondoren preso hartu eta El Dueson espetxeratu zuten. Burgosera eraman zuten gero, Francoren Armadarekin lan behartuak egitera.

1940an aske gelditu zen eta, Francoren erregimenaren aurkakoa hainbat ekintzetan parte

hartu ondoren, New Yorkera joan zen ihesi 1941ean, Cadixen itsasoratuta. II. Mundu Gerraren bukaeran, AEBetako Itsas Armadan sartu zen, eta Ozeno Barean aritu zen. AEBetako hiritartasuna hartu zuen.

1946an Pariserako jo zuen, erbesteko Eusko Jaurilaritzako eta EAJko agintari nagusiak —eta aita— zeuden hirira, Francoren aurkako altxamendua prestatzen ari zirelakoan. Baina haserre alde egin zuen handik, Italiara, Parisen Francori aurre egiteko asmorik sumatu ez zuelako.

Mexikon ere ibili zen, 1950ean AEBetara joan aurretik. Ez zen garairik onenean itzuli, maccarthismoaren sasoi ilunak baitziren. Komunismoaren aurkako gurutza berak ere jasan zuen.

EAJrekin beti oso kritiko izanik ere, harremanik izan zuen New Yorken bai Jose Antonio Agirre lehendakariarekin, bai EAJren eta Jaurilaritzaren ordezkari Jesus Galindezekin.

1952an ezkondu zen Miriam Nurnberg-ekin. Emazteak eta biek sortu zuten 1960ko hamarkadan Committe of Americans for Basque Survival, euskal auziari buruzko informazioa argitaratu eta banatzeko.

Euskal Herrira begira bizi izan da beti. 2003ko otsailaren 20an *Egunkaria* itxi zutenean, emazteak eta biek antolatutako Nazio Batuen Erakundearen aurrean elkarretaraztea. 2003ko abenduan, *Expediente Vasco* liburuaren aurkezpena zela eta, Euskal Herrira etorri zenean, omenaldia egin zion Nabarralde elkartek.

'Irutxulo'-n esanak

Asier Coloma ▶ *Irutxulo* aste-kariak elkarriketa egin zion Mario Salegiri 1999an. Salegik hainbat pasadizo harrigarri kontatu zituen.

Salegi Donostiaren defentsan aritu zen suttsuki 36ko gerran. «Gerra Zibileko lehenda-biziko egunetan kasinoaren asaltoan parte hartu nuen. Ti-roak botatzan eta tranbiak erretzen ibili nintzen».

Gerra ostean erbestean zeudene frankismoarekin izan zuten jarrera gogor salatu zuen Salegik. «Aliatuek ez zuten Francoren aurka borrokatzeko asmorik eta erbesteko Eusko Jaurilaritzak ez zuen

ezer egin. Erbestea saldua zegoen», azaldu zuen mingostasunez. Salegi errebolatari pe-toa zen. «Mundu justuagoaren bila ibili naiz beti. Independentista eta ateo naiz».

Erresistentzian aritu ziren emakume donostiarrak ere izan zituen gogoan elkarriketan. «Delia Lauroba eta Itziar Mujika Gerra Zibilaren ostean presoak eta laguntzen aritu ziren. Lehendabiziko erresistentzia sarea izan zen. Emakumeen lana oso garrantzitsua izan zen. Biak espetxeratu eta heriotz zigorrera kondenatu zituzten, baina azkenean ez zituzten hil», esan zuen. ◀

IÑAKI EGAÑA ▶ HISTORIALARIA ETA IDAZLEA

«Azken urteak Donostian pasatzeko asmoa zuen»

A. Coloma ▶ Iñaki Egañak Mario Salegiren bizitza jasotzen duen *Mario Salegi. La pasión del siglo XX* liburua idatzi zuen duela sei urte. Idazle eta historialari donostiarrarekin hitz egin dugu.

Mario Salegi Parte Zaharrean jalo zen duela 86 urte...

Gazteluko igoerako 24. zenbakian jaio zen. Bere amak 19 urte zituen bera jaio zenean, eta ezkongabea zen. Hasieran, Ostolaza abizena jarri zioten,

Salegi beharrean. Amak izeba eta amonarekin bizitzera bidali zuen, Fermin Calbeton kaleko 39. zenbakira.

Idazle fina zen Salegi, ezta?

Salegik oso gogoko zuen irakurtzea, eta Urgulleko gaztelura joaten zen horretara. Irakurtzeaz gain, idaztea ere gustuko zuen. Azken urtean hiru liburu bidali zizkigun, baina oraindik ez ditugu argitaratu. *Verano del 36. Memorias de un gudari* izenekoan, xeheta-

sunez kontatzen ditu 36ko gerrako Donostiako pasarteak.

1941etik New York izan zuen bizileku nagusi. Euskal Herri-ra bueltatzeko asmorik al zuen?

Franco hil zenetik Donostiara etortzen zen urtean behin edo bitan. Urte honen hasieran Donostiara etortzekotan egon zen, azken urteak Euskal Herrian pasatu nahi baitzituen. Gaixotasunak bere nahia zapuztu zuen. ◀

ONDARRETAKO KARTZELA ▶

Odoleztatutako hormak

Ondarretako hondartzan egiten ari diren lanekin, kartzelaren aztarnak agerian gelditu dira, eta espetxea ezagututako donostiarren memoriaren zati bat agerian jarri dute

ION LOPEZ

C entinela alertat /¡Alerta uno! ¡Alerta dos! ¡Alerta tres! ¡Alerta cuatro! Oihu hauek entzuten ziren gaurero, hamar minutu, Ondarretako kartzelaren inguruan. «Gerra garaian, amak haragiaren illara bidaltzen nindueen, kartzelaren albotik pasatzen nintzela, garrasi horiek entzuten nihen, niregatik zirela pentsatu nuen behin, eta harii eta zur gelditu nintzen. Ez dut sekula horrenbesteko beldurra izan». Ondarretako kartzela ondoan bizi izandako Manuel Unanuek edeki oroitzen ditu bertan gertatutako hainbat pasadizo, baina kartzela horretan soldaduskan ibilitako Manolo Gabarainek ere.

«Sarreran, zentinelak paritak zeuden. Kartzelak lau zutuen, baina lau izkinitan; oso txikiak ziren. Lubaki antzeko bat ere bazegoen, eta han kartzelarako sarrera zegoen. Hura zen hura, zulo zikinal Arratoiak ere ibiltzen ziren», dio Manolo Gabarainek. Presoak izugarri gaizki zeuden; bertan izandakoen hitzetan, sotoetako ziegak urez betetzen ziren eta itasagarrakin, metro eta erdira ere iristen zen ura.

Txikitako pasadizioak oso argi ditu Manuel Unanuek: «Ezeiza taberna gaur egun dagoen tokian eskola genuen gik, eta niri maisuak egunero 12.00etan sarreraren urte zid, zenbait preso iri etetik janaria eramaten genielako. Gurazok apeltxarrak nuben, eta hanga lagun askok janaria bidaltzen ziguten presoak eramateko. Notozbat gertatu zitizadan preso bati janaria eramaterikoa, kartzelakoek tokit aldatu zutela erantzutea. Hori esaten zigutenean, begienekin fusilatu egin zutela presoak».

Kartzelara egindako biasta haiek arazo bat edo beste ere ekarri zioten Manuel Unanuei. Baina ez 1933an Francisco de Iñakiak getariarraren sententzietan ekarri zizkizanak bezalako. Iñakiak bertan preso zegoela, haren sententzietan egin-dako biasta batean, euskaraz egiteagatik kartzelako ofizial batek pistolak buruan jarri zion emakume bati. Gertatzen honek oharburtu handia izan zuen garai hartako egunakietan.

Egunotan Ondarretako lanen harria hitzetik horterara da-biltzan zenbait teoria zalantzan



Manuel Unanue eta Manolo Gabarain, Ondarretako hondartzan. ... urte



Kartzelaren kanpoko kutspegia.

jarri ditu Manuel Unanuek: «Kartzelako paretak dirala diote, baina nire ustez, zati baten behintzat, tranbiaren bideko paretak dira. Tranbia bertatik pasatzen zen. Igelokito funikulararen geltoki parean buelta emateko».

Horma haiek espetxekeo paretak handien alboan zeuden, frankismoaren zorigaitzoko orokimena dakarten paretetan ondoan: «Gure eskolako jolas-tokia hondartza bera zen, baina gaur ez norbait fusilatu behar zutenen, ez ziguten bertara jolastera utzi jaten. Amak goizean esaten zidan egun horretan ez gurela jolasaldirik izango. Askotan marea igo arte,

MANUEL UNANUE
ONDARRETAKO BIZILAGUNA

«Kartzelako paretetan jende asko fusilatu zuten; haien odolak marea igitzen zenean garbitzen zen»

MANOLO GABARAIN
ANTIGUAN JARDIGAROA

«Hura toki zikina eta iluna zen. Garitak oso txikiak ziren, eta arratoiak ere ibiltzen ziren»



«Oda al delito y compendio al delincuente» zen kartzelaren lekua

hormak odolaz zikinduta geldituen ziren, eta itasakoak garbitzen zituzten».

1936ko urriaren 17a egun beltza izan zen Ondarretako kartzelaren historian. 191 preso abertzale, komunistak eta sozialistak bertatik atera eta Herantra eraman zituzten, han fusila zituzten. «Gerra hasieran fusilatutako asko Hernanin hil zituztela diote, baina ni ziur nago hemen bertan ere asko hil zituztela, inork ere jakin gabe Nik. hondartatik gorako arrapala zaharretan, hirupatua izan zuten. Ez nau harritzen bertan gertatutako gauzak gertatu izanak, nahiz eta nik ez nuen ezer ikusi».

Ondarretako kartzelak ez dio ia inori oromen onik ekartzen. Ez Francoren kontrakoek, noski. Baina eta gerraren lehen egunetan bertan izandako Francoren aldekoen ondorengoei ere. Lehen egun hasietan,

ukitu batekin, Manuel Unanuek.

Manolo Gabarainek oso oromen txarra du espetxean agintzen zuten militarrez. «Haiek aparteko gauza ziren. Ezin zenien haiekin hitz egin. Faxistak ziren, Francoren erregimenarekin zeharo identifikatuta zeuden. Ez nau harritzen bertan gertatutako gauzak gertatu izanak, nahiz eta nik ez nuen ezer ikusi».

Ondarretako kartzelak ez dio ia inori oromen onik ekartzen. Ez Francoren kontrakoek, noski. Baina eta gerraren lehen egunetan bertan izandako Francoren aldekoen ondorengoei ere. Lehen egun hasietan,

Espainiako Errepublikaren aurka matxinatutakoek, Valles-pin komandantearen agintaritza-paean, Donostiako zenbait lekuk hartu zituzten: Komandantzia Militarra, Kasinoa — gaur egungo udalatea —, Maria Cristina hotela eta Loidoko kuartelak. Borroka latzen ondoren, eta itasotik torpedo-ontzi batek lagunduta, Errepublikaren aldekoek gure horiek berreskuratu eta matxinatutakoak Ondarretako espetxera eramane zituzten.

Frankistak Donostian sartu ondoren, errepresio latza izan zen eta, berriro, kartzelak protagonismoa berres hartu zuen, orduan, sozialistak, abertzaleak, komunistak eta anarkistak bete zen. Egutera ez zen 1949 urterira arte aldatu; kartzela hurrera bota zuten urtera arte, alegia.

Garai baten oroigarri

1888an eraiki zutenetik 1949an bota zuten arte, Ondarretako kartzelak 61 urte iraun zuen zutik. Urte gogorrak izan ziren haiek donostiar askorentzat, baina goportasun horretan ere bizitzeko eta aurrera egingeko gogo izugarria zuen belaiandadi batek gogoan duen espetxe hura. Kartzelako hormak ere garai hartako bizimoduaren lekuko pribilegiatu izan ziren. «Garai batean, he-mente, kartzela alboan, itas karabineroen —guardia zibilak— kuartela zegoen. Etxe polita zen hura. Askotan, Santa Klara uhartetik gizon batekin etortzen ziren kuartelera. Giza-rajo haiek, Bilbo inguruan, nor-bait ordaintzen zitelen, itasaz eta gausez, mugaren beste alde-rra eramateko, baina bat baino gehiago Santa Klara uhartean utzi zuten. Ipar Duakel Herria zirela uste zuten. Eguna argitu-takoa eta karabineroak iristen zirenean izaten ziren kome-riak».

Kartzela Ondarreta aldeko auzoaren parte zen. Auzoak oso fama txarra zuen garai har-tan, Manuel Unanuek azaltzen duen bezala: «Orañ Benta Be-rrin bizi direneko ere Ondarretan bizi direla diote, baina urte haletan oso fama txarra zuen gure auzoak, eta Antiguaren ez ziguten sartzen utzi batzue-tan. Gure auzoan, besteak bes-te, neska alaien etxe famatu ba-tzuk zeuden».

Kartzela 1949an bota zuten eta gure lekueko ez dute go-goan gertatzen hura. Unanuek arrazoi garrantzitsu bat zuen: «Ni 1948an ezkondu egin nin-tzen. Urtebete geroago ez nen-goen honelako kontuetarako». Egia esan, gertatzen hain burur-ko datu gutxi dago; kartzelak bizitza tristea izan zuen eta bu-kaera ere iluna izan zen.

Aranzadik gutxienez 200 urte dituen egurrezko nasa topatu du Ondarretan

Erdi Aroko arrantzarako egituraren batekin ere lotura izan lezake

ANDER USABIAGA



Ondarretako nasa espetxearen aztarnen hurbil dago. ... urteak

NASA

Ezeiza hotelaren aurreko arrapala ondoan dago, ehun metro luze da, egurrezkoa, eta 28 pibote ditu

eta aurkikuntzari buruz datu gehiago eskuratzeko.

Kontuak kontu, Aranzadiko-en aurkikuntzak badu garrantzia. Gutxienez, 200 urte dituela

HIPOTESIAK

XV. mendeko dokumentazioak nasa bat aipatzen du, eta orain topatutakoa haren ondorengoa izan daiteke

esan dugu. Hala ere, XV. men-deko dokumentazioak inguru honetako nasa bat aipatzen du;

dirudienek, arrantzarako egitu-rra hura Donostiako Udala-

na zen. Ondarretan topatuta-koa haren ondorengoa izan daiteke. Ezin dugu ahaztu, gai-nera, gaur egun Miramar jau-regia dagoen tokian monaste-gi bat zegoela Erdi Aroan —Do-nosti XII. mendean sortu bai-no lehenagokoa—, eta moje haiek, agian, arrantzarako eg-ituraren bat izan zezakete-la. Arazadik hipotesi hauek gut-tiak ditu eskuarteak.

Elkartekideek Ondarretako lanetan zeresana duten alde gutxiak —Basko Iurialdea, O-puzkoako Foru Aldundia, Do-nostiako Udala, Espainiako Kosta zuerdaritzak, Janak eg-iten ari den enpresa eta Aran-zadi bera— arteko elkarlana na-barmendu nahi izan dute. Na-saren etorkizunari dagokio-nez, Perezek azaldu du ez duela trabarik egiten, hondar azpian dagoelako, eta beraz, bertan urtziko dutela.



Hondamakinak duela bi aste hasi ziren Ondarretan lanean. ... urte

ATLETISMOA ▶ HELDUEN MUNDUKO XVI. TXAPELKETA

Abiadura bizian dator Atleta Helduen XVI. Txapelketa Donostiara

5.000 atleta espero dituzte antolatzaileek;
maiatzaren 23ra arte da izena emateko epea

ASIER COLOMA

Atleta Helduen Munduko XVI. Txapelketako antolatzaileek prentsaurrekoa eman zuten atzo goizean, txapelketaren antolakuntzaren nondik norako berri emateko.

Antolatzaileek esan zuten, «dagoeneko 2.069 lagunek egin dute erreserba bederatzi egun horietarako, Donostia eta inguruko herrietan». Azaldu zuten, Gipuzkoan egiten diren erreserbak, oro har, ez dira horren luzeak izaten. Beraz, txapelketara etortzeko erreserba direla ondorioztatu zuten.

Hainbat atletek izena eman

dute jada. 300 atleta baino gehiago dira Donostiara etortzeko izena eman dutenak. Egiptotik, Boli Kostatik, Errusiatik, Venezuelatik eta Panamatik, besteak beste. Antolatzaileek bederatzi probatan parte hartuko duen 78 urteko emakumea nabarmendu zuten. 82 urteko beste emakume batek zazpi probatan esku hartuko duela ere azaldu zuten.

Boluntarioak lortzeko kanpainarekin pozik agertu ziren antolatzaileak. «Dagoeneko 400 pertsona inguruk eman dute izena boluntario aritzeko. Guztira, 1.000 boluntario lortzea da gure erronka. Ez da



Atzo goizean egin zuten prentsaurrekoa. IRUTHULO KO HITZA

erraza izango, baina bide one-tik goaz», azaldu zuten. Antolatzaileek ahalegin berezia egin dute boluntarioen artean eda-detuak egon daitezkeen: «50 urte baino gehiagoko 500 edo 600 boluntario izatea nahi dugun».

Epailei dagokionez, 200 epaile inguru beharko direla uste dute. Eta gehienak lortu dituzte. Oraingoan, Euskal Herriko 123 epailek izena eman dute, eta atzerriko 34k.

Txapelketako antolakuntzako Artzai Gomezek IRUTHULO KO HITZARI esan dionez, «Atletismoko Txapelketa egiteko lau hilabete baino falta ez direnean, izena eman duen jende kopuruak ekimen oso garrantzitsu baten aurrean gaudela adierazten du. Maiatzaren 23an itxiko da izena emateko epea, eta orduan jakingo dugu zehazki zenbat pertsonen parte hartuko duten».

AIZKORA ▶ URREZKO AIZKOLARIEN LEHIAKETA

Azken urratsa eman nahi du Etxebeste

Ligaxka nagusira sailkatzeko lehia du
gaur Peñagarikanoren, Legorretan

EKAITZ AGIRRE

Urrezko Aizkolarien Lehiaketako lehen zatia iritsi da une erabakigarria. Joxe Etxebeste eta Joxemiel Peñagarikanok ligaxka nagusira sailkatzeko lehia dute gaur Legorretan (22:30). Irabazten duena txapelketako bigarren zatira pasako da, eta aizkolari onenak izango ditu zain bertan: Nazabal, Olasagasti, Arrospide, Larretxea eta Mindegia. Sei aizkolariak bi multzotan banatuko dira.

Peñagarikanoren kontra

JOXE ETXEBESTE AIZKOLARIA

«Arria V.ren kontra izan nituen gorabeherak, baina erraz pasatu ditut beste kanporaketak; gaurkoa zailagoa da»

lehiatu aurretik, Juan Manuel Erasun, Fausto Mugertza eta Xabier Otaegi kanporatu ditu Etxebeste. Tartean Xabier Orbegoza Arria V.ren kontra galdun zuten Igeldokoak, baina Orbegoza lesionatu egin zen eta txapelketan jarraitzeko atea parez parez ireki zitzaion osterara ere Joxe Etxebesteri.

Igeldokoak ez zuen uste hain urrun iritsiko zenik txapelketan. «Ezustean iritsi naiz azken kanporaketara, ez bainuen gehiegi prestatu. Arria V.ren kontra gorabeheraren bat izan nuen, baina gainerako kanporaketak erraz pasatu ditut», dio Etxebeste. Peñagarikano aurkari gogorra izango du, urte askoan zailduta aizkolaria baita. Etxebeste, ordea, ez du irabaztea baztertzen. «Hasieratik eusten badiot aukerak badiudala uste dut, bukaera aldera nahiko ongi iristen ari naizelako», esan du.

Peñagarikanok eta Etxebes-



Joxe Etxebeste, atzo, Igeldoko plazan. EKAITZ AGIRRE

tek 45 ontzako bi enbor eta 60 ontzako eta kana-erdiko launa enbor ebaki beharko dituzte gaur: «Ez da lan handia, baina bai azkar egin beharrekoa».

Orain artean egindakoarekin gustura da Joxe Etxebeste. Azken ligaxkara sailkatzea «sari handia» litzatekeela dio, baina

hortik aurrera aukera gutxi izango lukeela ere bai. «Gaur irabaziko banu Larretxea eta Olasagasti izango nituzte kontrario; oso kontrario gogorrak, eta horiekin oso urrutira ez daukat joaterik», onartu digu. Lehenago, ordea, Peñagarikanori irabazi beharko dio gaur.

ERRUGBIA ▶

Spyro mendeku gose doa Madrilera

Errege Kopatik
kanporatu zuen
Madril 2012ren
kontra jokatu du

ASIER COLOMA

Spyro Bera Berak Madril 2012ren aurka jokatu du gaur arratsaldean (17:00). Liga bukatzeko hiru jardunaldi baino falta ez direnean, donostiarrak hirugarrenak dira sailkapenean.

Spyro Bera Berak Liga irabazteko aukera du oraindik ere, baina ez da batere erraza izango. Spyroko jokalaria Gorka Buenoren arabera, «falta diren hiru partidak irabazteko joango gara. Zenbakiei begiratu, txapeldun izateko aukera dugu oraindik ere. Baina hori oso zaila izango da», esan du.

Madril 2012k Liga makal hasi bazuen ere, azken txanpa ederra egiten ari da. Gonzalo Maleiro portugaldarra da jokalaririk arriskutsuena.

Jonathan Bell australiarrak ezingo du donostiarrak jokatu txorkatilean min hartu baitzuen Arquitecturaren aurkako partidaren. Azkenaldian lesionatuta egon den Ignacio Martin pilierrak, ordea, jokatu ahal izango du.

ERRUGBIA ▶

Hil edo biziko partida Donostia Atletikorentzat

A. COLOMA

Donostia Atletikok Ohorezko B Mailara igotzeko aukera paregabea du. Gernikaren kontra jokatu du finalerdietako bueltako partida, arratsaldeko 17:00etan, Aieten. Joaneokan bizkaitarrak izan ziren nagusi (17-5). Beraz, talde donostiarrak 12 puntuko errenta irauli beharko du finalera heltzeko. Kanporaketa irabazten duenak hurrengo denboraldian Espainiako Ohorezko B Mailan jokatu du. Gernika talde ona den arren, donostiarrak irabaz dezaketela uste dute.

MUSIKA ▶ 40. JAZZALDIA

Izarrak aukeran Jazzaldian

Izen handiak eta Jazzean hasten ari diren musikariak izango dira gurean

ERREDAKZIOA

Musikari eta alderdi politikoe-tako ordezkari asko hurbildu zen atzo udalbatzako aretora, 40. Jazzaldiaren aurkezpena zuzen-zuzenean jarraitzeko. Miguel Martin Jazzaldiko zuzendariak eta Odon Elorza alkateak hitz egin zuten. Jakinarazi zuten, Jazzaren festa uztaillaren 22an hasi eta 27an bukatuko da.

Aurtengoa Jazzaldiaren 40. urteurrena izango denez, aha-lerin berezia egin nahi izan dute antolatzaileek zaleak asetzeko. Azken urteotan Donostian izan diren musikari ospetsuenetako batzuk gonbidatu dituzte gure artera. Esate baterako, Maceo Parkerrek uztaillaren 22an joko du Zurriola hondartza inguruan jarriko dituzten eszenatokietako batean; Keith Jarrett Trio Kursaal Auditorioan izango da uztaillaren 24ean. Jazzaldiaren azken egunean, uztaillaren 27an, Van Morrisonek, *Belfasteko lehoiak*,

Kursaaletan abestuko du. Aurtengo Jazzaldiko izarren gainera egiterakoan, ezin ahaztu Keith Jarrett, Kenny Barron eta Phil Woods handiak, besteak beste.

Lehen aldiz Donostian izango diren artista handiak ere nabarmendu nahi izan zituzten atzoko aurkezpenean: Joe Cocker, Gilberto Gil, Roberta Flack, The Blind Boys of Alabama, Dave Holland...

Entzule gazteak erakarri nahian, sona handiko musikariez gain, lehen urratsak ematen ari direnei ere Donostiara etortzeko gonbita egin diete antolatzaileek. Antony & The Johnsons, Brazilian Girls, Gotan Project-eko Philip Cohen edota BossaCuaNova. Jazzaldiaren antolatzaileen hitzetan, «etorkizuneko proposamenak dira horiek; joera musikal berrietara emanagoak dira gainera».

Iñaki Salvadorren taldea

Etzekoei dagokien, Iñaki Salvadorren taldea nabarmendu behar da. Adituen ustez, Jazz musikan, euskal piano jotzaile onenetakoa da donostiarrak. Aurreko urteetan Jazzaldian jo izan duten zenbait euskal musikarirekin ariko da Iñaki Salvador.

Nabarmentzekoa da, bestalde, Jazzaldiak 40 urte beteko dituzten honetan, amateur eta profesional lehiaketetan eta klubetako eta kaleko emanaldietan parte hartu zuten hainbat musikariri 40. Urteurrene-



Keith Jarrett. Kursaal Auditorioan joko du uztaillaren 24ean. IRUTXULOKO HITZA



The Blind Boys of Alabama. IRUTXULOKO HITZA

ko Big Banda izeneko taldea osatzeko aukera eman dietela antolatzaileek.

Sarrerak apirilaren 25ean jarriko dira salgai. Jazzaldiaren egoitzan —Camino kalea 2—; 943 440034 telefonoan; 943 421117 faxean eta www.jazzaldia.com eta www.kutxa.net webguneetan. Ohi bezala, bi abonua izango dira aukeran: Trinitate plazako kontzertuetarako eta Kursaal Auditorioan egingo dituztenetarako.



Maceo Parker. Eric Burdonekin batera ariko da, uztaillaren 22an.

SEI EGUN

40. Jazzaldia uztaillaren 22tik 27ra bitartean izango da; sarrerak apirilaren 25ean jarriko dituzte salgai

IZARRAK

Beste behin ere Van Morrison etorriko da Donostiara

MUSIKA ▶

Oskorriren eta Kukubiltxoren ikuskizun berria

Oskorrik eta Kukubiltxok *Doctor Do Re Mi* eta *benedizebra* ikuskizuna aurkeztu zuten Koldo Mitxelena. Bihar estrainatuko dute Arrasaten, Kilometroak jaialdiaren barruan, eta uda ondoren Donostian.



Oskorri eta Kukubiltxo atzo Koldo Mitxelena. ONINTZA ODRIOTZOLA

LAN ESKAINTZA

BANAKETA ENPRESA batek banatzaile bat behar du Donostian.

LAN BALDINTZAK

- Astegunean sei egun. Asteartetik Igandera.
- Bi aste lan, bat jai.
- Egunean 5 ordu.
- Goizeko 3:00etatik 08:00etara.

EZINBESTEKO DA AUTOA IZATEA

Apirilaren 25an, astelehena, deitu telefono honetara: 943 304341

HAUR ANTZERKIA ▶

Hika taldearen
'Groau!' obra
Altza kultur etxean

Hika taldeak *Groau!* haur antzezlan eskainiko du gaur Altza kultur etxean. Mitsi katakume nerabeak nortasun krisi larria du. Hortaz, bidaia bat egitea erabakiko du. Bidaian, Erbiron, Azerito eta Katagorria ezagutuko ditu. Jabier Muguru-zak egin du musika.

▶ **Ordua.** 18:00. ▶ **Non.** Altza kultur etxea.



Groau! antzezlan.

MUSIKA ▶

Doinu gogorak
nagusi izango dira
Loiolako frontoian

Golpe de Estado, Mendeku Itsua, Harrika eta Suburbio musika taldeek kontzertua eskainiko dute gaur iluntzean Loiolako frontoian. Doinu gogorak jaun eta jabe izango dira bertan, ezbairik gabe. Loiolako Gazte Asanbladak antolatuta du kontzertua.

▶ **Ordua.** 20:30. ▶ **Non.** Loiolako frontoia.



Harrika taldea.

MUSIKA ▶

Boskoitz
haize boskotea
Miramonen

Boskoitz haize boskoteak narrazioa —gaztelaniaz— eta musika uztartuko ditu gaur goizean Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren egoitzan eman- go duen kontzertuan. Besteak beste, Luciano Berioaren *Opus Number Zoo*, *Children's Play* for Wind Quintet eskainiko du.

▶ **Ordua.** 11:00. ▶ **Non.** EOSen egoitzan (Miramon).

AGENDA ▶

▶ ekitaldien berri emateko, agenda@iruthulokohitza.info helbide elektronikoa, 943 467236 telefonoa edo 943 446532 faxa erabili

GAUR (LARUNBATA, 23)

Musika. Zea Mays. Egiako Bukowski tabernan, 20:30ean.

Musika. Golpe de Estado, Mendeku Itsua, Harrika eta Suburbio taldeak. Loiolako frontoian, 20:30ean. Antolatzailea: Loiolako Gazte Asanblada.

Musika. Mirian Cepeda organo jotzailea. Loiolako elizan, 20:00etan.

Musika. Boskoitz. Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren egoitzan (Miramon), 11:00etan.

Musika. Atipicos, Karkaba eta Xtorsion. Azkuene kaleko Mogambo aretoan, 21:00etan.

Musika. Pontxo K eta Los Reconoces. Ilunbe aisialdi guneko Rock Star aretoan, gaueko 22:30ean.

Musika. Valtierako Banda. Antiguako Jose Maria Sert plazan, 20:00etan.

Musika. Dreadrive DJa. Branka tabernan (Haizearen Orrazia), 23:00etan.

Musika. DJ Asier Meataka. Antiguako Kandela aretoan, 00:00etan.

Musika. DJ Imanol Costas. Parte Zaharreko Etxekalte tabernan, 00:30ean.

Antzerkia. *¡Nasdrovia Chejov!* antzezlan, gaztelaniaz. Vaiven antzerki taldea. Antzoki Zaharrean, 20:00etan eta 22:30ean.

Haur antzerkia. *Robin eta Hood*. Gorakada taldea. Egiako Gazteszenan, 18:00etan.

Haur antzerkia. *Groau!* Hika taldea. Altza Casares kultur etxean, 18:00etan.

Haur antzerkia. *Que pasa en la plaza* antzezlan. Pablo Nojes. Amara Berriko Ernest Lluch kultur etxean, 18:00etan.

Haur antzerkia. *Nadarin* antzezlan. Titeres Tropicall. Antiguako Lugaritz kultur etxean, 18:00etan.

Literatura. Liburuaren Eguna. Liburuaren azoka, Gipuzkoa plazan, 09:30ean.

Hitzaldia. *Desacuerdos. Feminismoaren mutazioak: genealogiak eta praktika artistikoak*. Del Lagrace Volcano artistaren

mintegia, 10:30ean. Arratsaldean, 19:00etan, mahai-ingurua Del Lagrace Volcano, Lalla Kowska eta Moises Martinez artistekin. Bukaera jaia, 21:00etan; Victor Little King musikaria ariko da. Ekitaldi guztiak Artelekun izango dira. **Bestelakoak.** Haur jolasak. Intxaurrondoko Bernart Etxepare plazan, 17:00etan. Bost eta hamaika urte arteko haurrei zuzendua. Antolatzailea: Plaza- ra Goaz euskara elkarte.

BIHAR (IGANDEA, 24)

Musika. Wagnerren *Tristan eta Isolde* opera. Bordeleko Opera Nazionala. Kursaal Auditorioan, 16:30ean.

Musika. O'Funkillo. Ilunbe aisialdi guneko Rock Star aretoan, 22:00etan.

Musika. Aguraingo Banda. Bidebietako Salvador Allende parkean, 13:00etan.

Antzerkia. *Nasdrovia Txekhov!* antzezlan, euskaraz. Vaiven antzerki taldea. Antzoki Zaharrean, 20:00etan.

Dantza. Dantza erakustaldia. Kontxako pasealekuan, eguerdiko 12:00etan.

Bestelakoak. Arte Azoka. Hainbat artistaren pinturak, eskulturak eta argazkiak. Bulebarrean, 11:00etan. Euria egingo balu, Gipuzkoa Plazan.

ERAKUSKETAK

Gure mundua. Oliver Boberg eta Philippe Ramette artisten argazkiak ikusgai. Koldo Mitxelena kulturuneko erakustaretoan, apirilaren 30a arte. Asteartetik larunbata arte: 10:30-14:00/16:00-20:30.

Santiago Ydñez pintorearen margolanak. Kur arte aretoan (Zurriola pasealekua 16). Ekainaren 15a arte.

Astelehenetik larunbatera: 10:30-13:30/17:00-21:00.

Isabel Sanz pintore donostiarraren margoak. Kubxa Boulevard aretoan, maiatzaren 2a arte.

AIORA RENTERIA ▶ ZEA MAYS TALDEKO ABESLARIA



NOE

«Bukowskiko azken kontzertua
luzaro oroi dadin ahaleginduko gara»

liñaki Lazkano ▶ Zea Mays musika taldeak *Sortuz, grabitatearen aurka* diskoa aurkeztuko du gaur, 20:30ean, Egiako Bukowski tabernan. Kontzertu berezia izango da: Bukowskiko azken kontzertua. Taldeko abeslari Aiora Renteriarekin aritu gara hizketan.

Sortuz, grabitatearen aurka diskoa berezia da zuen musikari ibilbidean.

Aurrekoekin konparatuz gero, disko nahiko ezberdina da. Askoz zuzenagoa da. Hitzak ere askoz ere baikorragoak dira. Gainera, hasieratik bukaera arte, tentsio bera dute abesti guztiek. Eta, nire iritziz behintzat, abesti nahiko biribilak irten zaizkigu

Musikari erreparatuta, ohi baino disko leunagoa da.

Baliteke. Dena dela, diskoaren hasiera gogorra da. Ondoren, musika leunduz doan arren, kanta guztietan tentsioa mantentzen da.

Kolaboratzaile finak izan dituzue disko honetan.

Doctor Deseo taldeko Francis abeslaria kantatzen aritu da. Raulek teklatuak jo ditu. Rafa Ruedak, bi abestitan, ahotsak sartu ditu. Iban Nikolaik ere didjeridoo musika tresna jo du abesti batean. Lagun minak dira gehienak. Askotan lan egin izan dugu eurekin, eta disko honetan gure artean nahi genituen.

Hitzak baikorrek direla alpa-

tu duzu. Horretan ere aldaketa sumatzen da.

Sentimenduei buruzko hitzak dira. Aurrera egin beharraz hitz egiten da. Musikari gisa, sortzeko dugun beharraz. Dis- ko honetan aurrera begiratu dugu. Aurrekoetan, aldiz, atze- ra begira egon ginen. Horre- gatik hitzak askoz ere bai- ko- rragoak dira.

Zer eskainiko duzue gaurko kontzertuan.

Disko berriaren kanta kontzertuaren bizkarrezurra izan- go diren arren, betiko abestiak ere joko ditugu. Kontzertu on bat eskaini nahi dugu; jendea gustura gera dadin. Bukowskiko azken kontzertua luzaro oroi dadin ahaleginduko gara.

HAUR ANTZERKIA ▶

‘Robin eta Hood’ antzezlan Gazteszenan

Gorakada taldeak *Robin eta Hood* antzezlan taularatuko du gaur arratsaldean Egiako Gazteszenan. Robin izeneko gazteak Robin Hood heroia abenturak biziko ditu. Umeen-tzako ikuskizunak aktoreak eta panpinak biltzen ditu. Jokin Oregik idatzitako lana da.

▶ **Ordua.** 18:00. ▶ **Non.** Egiako Gazteszena.



Robin eta Hood antzezlan.

TELEFONO ZENBAKIAK ▶

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Gurutze Gorria	943 222222
DYA	943 464622
Itsasoko Gurutze Gorria	900 202002
Farmaziak	943 429117
Suhiltzaileak	080

OSASUNA

Larrialdiak	943 461111
Donostiako ospitaleak	
▶ Amara	943 007400
▶ Arantzazu	943 007000
▶ Gipuzkoa	943 006000
▶ Psikiatria	943 007213
▶ Larrialdi orokorrak	943 007053
Poliklinika	943 309400

POLIZIA-TRAFIKOA

Ertzaintza	943 288888
Udaltzaingoa	092
Udal garabia	943 320658

MATXURAK

Iberdrola	901 202020
Donosti Gas	943 445090/91
Naturgas	900 400523
Ur matxurak	943 481050
Euskaltel	045
Telefonica	1002

GUARDIAKO FARMAZIAK ▶ GAUR

EGUNEZ (09-00-22:00)

- ▶ **E. Yurrita.** Narrika 23 (Parte Zaharra). 943 420649
- ▶ **M. A. Arrasate.** Heriz pasealekua 16 (Antigua). 943 215877
- ▶ **X. Mendaraz.** Karmengo Ama 4 (Egia). 943 327177
- ▶ **M. E. Oteiza.** Serapio Mujika 8 (Bidebieta). 943 397156

GAUEZ (22:00-09:00)

- ▶ **E. Imaz.** Bergara 3 (Erdialdea). 943 42 17 12

TAXIAK

Radio-taxi Donosti	943 464646
Vallina Teletaxi	943 404040
Radio Suita	943 396840
Radio-telefonoa	943 426642

GARRAIOAK

Renfe	902 240202
Eusko Tren	902 543210
Hondarribiko aireportua	943 668500

ERAKUNDE PUBLIKOAK

Udala	943 400582
Udal Euskara Patronatua	943 483750
Foru Aldundia	943 002111

EUSKARA, KULTURA

Behatokia (kexak)	902 194332
Bagera	943 467181
Bertsozale Elkartea	943 217798
Gipuzkoako Ikastolen Elk.	943 445108
Euskaltegiak	
▶ Hitzez	943 278155
▶ Legazpi 6	943 424366
▶ Ulialde	943 281369
▶ Urumea	943 464655
▶ Ilazki	943 424910
▶ AEK	943 327611
▶ Monpas Berri	943 277465
▶ Urrats	943 465593

ZINEMA ARETOAK ▶

TRUEBA (Sekundino Esnaola, 2. ▶ 943 271 391. Ikuslearen eguna: asteartea)

▶ Millones (azpititulatua)	17:00 19:00 21:00 23:00
▶ Samaritan Girl	17:00 19:00 21:00 23:00

ANTIGUO BERRI (Zarautz 1. ▶ 943 219120. Ikuslearen eguna: astelehena)

▶ El hundimiento	19:30 22:30
▶ Las tortugas tambien vuelan	16:30 18:30 20:30 22:45
▶ Los chicos del coro	17:30 20:00 22:15
▶ Un canguro super duro	16:30 18:30 20:30
▶ Habana Blues	20:00 22:45
▶ Bodas y prejuicios	22:45
▶ Reinas	17:00 20:00 22:15
▶ Fragil	17:30 20:00 22:15
▶ Sahara	17:00 20:00 22:45
▶ Robots	16:30 18:15
▶ Heffalump	16:30 18:00

BRETXA (Arrandegia eraikuntza. ▶ 943 421 371. Ikuslearen eguna: asteartea)

▶ Un canguro super duro	16:15 18:15 20:15 22:15
▶ Robots	16:00
▶ La maldicion	16:00 18:00 20:00 22:00
▶ La interprete	17:15 19:45 22:15
▶ In Good Company	16:00 18:15 20:30 22:45
▶ Million Dollar Baby	17:00 19:30 22:30
▶ El gran golpe	16:10 18:30 20:30 22:30
▶ The Ring 2	18:00 20:15 22:30
▶ Be Cool	16:00 18:15 20:30 22:45
▶ Enamorate	16:00 18:00
▶ Malevolence	20:00 22:00

PRINCIPE (San Joan, 10. ▶ 943 421 247. Ikuslearen eguna: asteazkena)

▶ Codigo 46	17:00 19:00 21:00 23:00
▶ Algo en comun	17:00 19:00 21:00 23:00
▶ Habana Blues	17:30 20:00 22:30

▶ In my Country	17:30 19:45 22:45
▶ In Good Company	17:15 19:30 22:15
▶ Los edukadores	16:45 19:30 22:15
▶ Reinas	17:30 19:45 22:45
▶ Mi querido Frankie	17:15 20:00 22:15
▶ Entre copas	16:45 19:30 22:15
▶ Millones	17:00 19:00 21:00 23:00

WARNER (Ilumbe gunea. ▶ 943 308 170. Ikuslearen eguna: astelehena)

▶ Robots	16:00 17:50
▶ Million Dollar Baby	19:50 22:30
▶ Sahara	16:30 19:15 22:00 00:50
▶ La maldicion	16:00 18:10 20:20 22:30 00:40
▶ In Good Company	16:00 18:20 20:40 23:00 01:20
▶ El gran golpe	16:15 18:30 20:40 22:50 01:10
▶ Be Cool	17:00 19:30 22:00 00:30
▶ The Ring 2	16:00 18:20 20:40 23:00 01:20
▶ La interprete	16:45 19:30 22:15 01:00
▶ Saw	16:15 18:20 20:30 22:40 01:00
▶ Un canguro super duro	16:15 18:10 20:10 22:15 00:15
▶ Hitch	01:10

LAUREN (Urbil gunea - Usurbil. ▶ 943 376 557. Ikuslearen eguna: astelehena)

▶ El gran golpe	16:15 18:20 20:30 22:45 00:55
▶ Sahara	16:30 19:10 22:00 00:45
▶ La maldicion	16:00 18:10 20:30 22:45 01:00
▶ Un canguro super duro	16:10 18:20 20:35 22:45 00:50
▶ Enamorate	16:00 18:05
▶ The Ring 2	16:50 19:10
▶ Reinas	20:25 22:40 00:55
▶ Be Cool	20:00 22:20 00:55
▶ Robots	16:00 18:00
▶ Million Dollar Baby	22:00 00:35
▶ La interprete	16:20 19:15 22:00 00:45

ZINEMA ESTREINALDIA ▶ ‘CODIGO 46’



ZIENTZIA-FIKZIOA ▶ *Nine Songs* hutsala egin aurretik, zientzia-fikziozko film ilun hau errodatu zuen Michael Winterbottom interesgarriak. Etorkizunean, hiritartasun txartelak soilik eskaintzen du zoriona. Agiri

faltsuak banatzen dituen pertsona baten bila dabil William ikerlaria. Susmagarriarekin maiteminduko da, ordea. Drama sozial fina da.
▶ **Filma.** *Codigo 46*. ▶ **Estreinaldia.** Apirilak 22. ▶ **Non.** Principe.

hilberriak ▶

Mario de Salegi Ostolaza

Idazlea eta Eusko Indarraren batailoiko gudaria
New Yorken hil da 2005eko apirilaren 22an

Egun handira arte

Senitartekoak

DONOSTIA, 2005eko apirilaren 22an

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
943 46 72 36 - 647 319 761
donostia@irutxulokohitza.info

Mensaje

Enviado: 25, Feb, 2005 1:31:18 PM Asunto: 4 entradas U2 San Sebastian (las mejores vistas!!)

Me quedan 4 entradas para el concierto de U2 en Anoeta. Están situadas en la grada central 3ª fila, el precio es:

4 a 190€ cada una
 2 a 200€ cada una

mandame mail a u2tickets@mixmail.com y si dejas tu tlf te llamo (tramitación segura)

Saludos y nos vemos en agosto!!

Webgune ugaritan jarri dituzte salgai sarrerak. IRUTXULOKO HITZA

Vendo entradas U2 San Sebastián ¡¡ muy baratas !!

Hola

Vendo entradas para el concierto de U2 de San Sebastián en Gradera, están numeradas y son conativas.

El precio es de 150 € cada una. Si estás interesado/a puedes escribirme a entradasu2barcelona_1@hotmail.com

Gracias y un saludo.

Zona: España
 Publicado el 02-04-2005

Contacto:
 Nombre: Entradas u2

Mezu bakar bat ere ez dugu euskaraz topatu. IRUTXULOKO HITZA

ONINTZA ODRIOZOLA

Abuztuaren 9a. Urtarrilaren 20a, San Sebastian eguna, baino egun sakratuagoa izango da aurten donostiar askorentzat. Zeresanik ez, kanpoko hainbatentzat. Izan ere, U2 talde irlandarra Anoetako estadiora etorriko da egun horretan.

Kontzerturako 40.000 sarrerak otsailaren 18an jarri zituzten salgai, eta 15:30erako ez zen bakar bat ere geratzen. Zoramena nagusi izan zen Anoetako leihatiletan, eta Bilintx eta Ikatz denden aurrealdean. U2zale batzuk triste eta etsiturik itzuli ziren etxera; esku hutsik, sarrerarik gabe. Oraindik aukera badute, ordea. Diru mordoxkaren truke, jakina.

Izan ere, zoramena interneteko foroetara iritsi da orain. U2zaleen artean, Anoetako kontzertuko sarreraren *trukea* pil-pilean dago. «Sei sarrera ditut harmailetarako. Zenbaki-tuak. 7 eta 8 ateak. Bakoitza 150 euro», dio zale anonimo batek. Denak salneurri horren inguruan dabilta: 120 eta 400 euro bitartean.

Webgune horietako batean, U2zale amorratuenei zuzendutako mezu anonimo hau dago: «Adi, adiskideok! Bi OPI —Oso Pertsona Inportante— baimen ditut. Garesti samarrak dira, baina etekina aterako diezue ziur... Aldageletarako eta agertokirako sarrera eskusiboa. Hori pagotxa... 1.500 eurotan bakoitza». Jabeak bai pagotxa, dirutza hori poltsikoratuz gero!

Sarrerak *trukatzeko* aukera ematen duten webgune asko dago. Eta mezuak, mordoa. Aukerak egon badaude, beraz. Dirua ordaindu behar da, noski, eta ez gutxi. Kontuak kontu, euskaldunek beste bide batzuk nahiago omen dituzte sarrerak erosteko edo saltzeko. Ez baitugu mezu bakar bat ere euskaraz topatu...



Duela bi hilabete pasatxo, 2.000 lagun baino gehiago elkartu ziren Anoetako ilaretan. IRUTXULOKO HITZA

AGURRAK ▶



ZORIONAK
bikote! Urte askotarako izan dadila. Muxu handi bat, zuen Aimirren partez.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

CLICK DONOSTIA argazki denda (Peñaflorida 6)
 FOTO MIKI (Matia kalea 3)
 KATTAGORRI argazki denda (Larrañaga pasealekua 26)
 DAM arropa denda (Narrika 23)
 EASO LIBURUDENDA (Mandasko dukea 9)

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!